




EMOZIOAK

Doinua: Iruten ari nuzu

Neurria: Bi puntuko txikia (ip) / Kopla txikia (hg)



Maddi Sarasua Laskarai

- 1 Barneari nahi diot ulertuz **erantzun** (bis)
horra bost emozio ezagut **nazazun.** (bis)
- 2 Bisaia gorritzen zait, lotsaz, **ezinean** (bis)
mintzatu behar banaiz denen **aitzinean.** (bis)
- 3 Pentsatu gabe bota dezaket **orrua** (bis)
zure ekintzak eman badit **amorrua.** (bis)
- 4 Bakarrik banaiz gaez, hasten naiz **kantari** (bis)
nork ez dio beldurrik **iluntasunari?** (bis)
- 5 Malko bat sortzen bazait matel **bazterrean** (bis)
zure eskua nahi dut ene **bizkarrean.** (bis)
- 6 Zuekin nahiko nuke momentua **goza** (bis)
partekatuz handitzen zaidalako **poza.** (bis)

